

Jendetzak parte hartu du Olatu Talka jaialdiko bigarren egunean

Ostiraleko inaugurazio ekitaldiaren eta bestelako ekitaldien ostean (Geotalks, Kontxa Gaumarket, Kontzertuak...), Olatu Talkako bigarren eguna indartsu abiatu da. Goizean goizeko euria gaindituta, eta eguraldia lagun, jendetza elkartu da ekitaldi askotan.

Ekitaldi guztiak aipatzea ezinezkoa da, baina hona hemen aipamena merezi duten hainbat ekitaldi:

Zurriola: Goizean Zurriola hondartza inguruan giro polita izan da. Alde batetik, **hondarrezko Eskultura Jaialdian Kunsthal** Goi Mailako Diseinu Zentroak eskultura eder bat egin du eta horrez gain, hainbat herritarrek euren eskulturak egin dituzte, **Primeran** elkartearen laguntzaz, hondartzari itxura ederra emanez. Bestetik, Urbanzientzia barruan Zurriolako hondartzan eta gero Katalunia Plazan elefante eskeletoarekin egindako **paleontologia tailerrak** interes handia sortu du. Horrez gain, goizean egindako **konzertuak** ere oso giro onean joan dira: **Black Friday, Tritones** eta **Sinmalaintención**.

Intxaurrondo-Sagastieder: Intxaurrondon Sagastieder plazan **90 postuko berrerabilera merkatua** egin da Intxaurdi, Kaleko Elkartasun eta Kultur Elkartea eta Emausek bultzatuta. Goizeko euriagatik plazako arkupeetan sartu behar izan dira postuak, baina gainerakoan merkatua ongi joan da. Giroa ere bikaina izan da, **Irutxulo Folk, May & Jukebox** eta **PJ Kahuna eta Sara Grajal**en kontzertuetan. Horrez gain, Intxaurrondo Kultur Etxean goizean Donostia Kulturako ikastaroetako kideen emanaldia izan da eta 200 lagunetik gora elkartu dira. Arratsaldean ere emanaldiak izan dira Kultur Etxean.

Urbanzientzia: Zientzia jendarteratzeko ekitaldiek ere arrakasta handia izan dute, jende asko ibili da Teknahik jarritako karpan: egun osoan egindako **tailer bereziak, Turing eta kodea, hitzaldiak** eta abar.

Tailerren gunea: Konstituzio Plaza tailerren gune bihurtu da gaur goizean 11:00etatik 14:00etara, eta jende asko elkartu da serigrafia tailerrean, idazketa tailerrean, DYAk eskainiko tailerrean eta beste hainbatetan. Goiz osoan zehar Konstituzio Plazan izandako **18 tailerretan** jo eta su aritu dira, haur, gaztetxo eta helduak.

Beste tailer asko egin dira **Cristina Enean: Bioeraikuntza, Yoga, Tai Chi Chuan** eta abar. **Frantzia pasealekuan** Gipuzkoa Solidarioak antolatutako **batukada tailerrean** eta **zapiak jartzeko moduen inguruko tailerrean** ere jende askok parte hartu du. Tailer edo ikastaroen artean ezin ahaztu Antiguako Zubimusu parkean egindako **bi parkour ikastaroak**.

Ibilbideak: Larunbateko ibilbide arrakastatsuen, zalantzarik gabe, Urumean barrena egindakoa izan da, izan ere, **Atari elkarteak Urumea ibaitik hiriko arkitektura ezagutzeko** antolatutako bidaiak guztiak bete dira eta jendea oso gustura aritu da. Beste ibilbide aipagarri bat Gipuzkoa Solidarioak antolatutako **gurpil gaineko ginkana** izan da, jende asko ibili baita hirian barrena era guztietako gurpildun ibilgailuetan. Ezin aipatu gabe utzi **Bidebietako istorioak eta historia** ezagutzeko ibilbidea, **poesia eta antzerkia** elkartu dituen ibilaldia edo **baleen inguruko historia** ezagutzeko egindakoa.

Egia Segurua, Haurren Egia: Goiz osoan Egiako **Tejeria kalea haurren erreinu** bihurtu da eta hamarnaka haur ibili dira bertan jolasean, era guztietako jolasekin.

Munduko Festen Topaketa: Teresa de Calcuta plaza munduko festen topaleku ezin hobea bihurtu da gaur arratsaldean: **Frantziako, Ukrainako, Txinako, Saharako, Bulgariako eta munduko beste hainbat lekutako festak eta ohiturak ezagutzeko** leku paregabea bihurtu da.

OLA TU !!! TALK A !!!

Altza: Harria parkeko **zumbathon** saio irekia oso giro onean joan da eta, ondoren, **Roteta kalea** girotzeko dendariak antolatutako kale merkatuan eta kontzertuan ere giro bikaina izan da.

Amara: Amaran hainbat ekimen egin dira goizean **Ferrerias plazan:** haurren jolasak, musika eta dantza emanaldiak. Ekimen arrakastatsuenetako bat Arccon antolatutako **Dantza Show Time** izan da. Horrez gain, hainbat **merkatariak postuak kalera** atera dituzte eta Gregorio Ordoñez kalean **merkatua** egin da.

Kontzertour: Eguerdian hasita eta gauerdia arte hirian barrena hamarnaka kontzertu egin dira eta egongo dira. Leku berezien artean, **Eustasio Amilibia** plaza aipatu behar, izan ere, **Gure Bazterrak** izeneko gunean 18:00etan hasitako kontzertuarekin, erabilera publiko eta kulturala eman zaio, erabilera gutxiko plaza horri. Ahaztu behar ez den beste gune berezi bat **Basoka** da: 18:00etan hasita, Miramongo basoa hirugarren urtez kontzertu gune bihurtu da. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi Kaiko, Kursaaaleko eta Sagueseko eszenatokiak, kontzertu ugari egin baitira bertan eta egingo dira gauerdia arte.